



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

**AZTERKETARIA**

**LEHEN DEITURA** .....

**BIGARREN DEITURA** .....

**IZENA** .....

**NAN** .....

**EGUNA: 2009ko ekainaren 1a**



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

**1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK**

**Honako galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu ariketaren amaieran (11. orrialdean) dagoen erantzun-taulan erantzun horri dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengeatik.**

1. Aukeratu ezazu galdera honen erantzun egokia: “*Zer egingo dute bihar?*”

- a) Ez dakit nora doaz.
- b) Ez dakit nora joatekoak diren.
- c) Ez dakit nora joaten diren.
- d) Ez dakit nora doazten.

2. Aukeratu ezazu bikote zuzena: “*Hain da gosetia, \_\_\_\_\_ hori guztia janda ere ez \_\_\_\_\_ aseko.*”

- a) non / litzatekeela
- b) zeren / bailitzatekeela
- c) ezen / bailitzateke
- d) zergatik / baita

3. Mina erraz sentitzen edo hartzen duena:

- a) Mingarria
- b) Minbera
- c) Mintsua
- d) Mintegia

4. “*Joxeren atorra ez da \_\_\_\_\_, eta gainera ez duzu \_\_\_\_\_ eramaten.*”

- a) zurea bezala / Joxe bezala
- b) zurea bezalakoa / Joxek bezala
- c) zure modutakoa / Joxerena legez
- d) zure moduan / Joxe bezala

5. Buka ezazu esaldi hau: “*Lagun batek loteria egokitu zaiola esan dit, baina \_\_\_\_\_.*”

- a) gezurra den susmoa daukat.
- b) gezurra delaren susmoa daukat.
- c) gezurra deneko susmoa daukat.
- d) gezurra denaren susmoa daukat.

6. Zer adierazten dute *txerriki*, *ardiki*, *odolki* hitzek?

- a) Portaera desegoki bat.
- b) Zenbait animaliarekiko konpainia.
- c) Haragi edo janari mota bat.
- d) Animalia gazteak, kumeak.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

7. Honako hauen artean, zein da euskara batuko arauen arabera idatzia dagoena?

- a) eros arazi
- b) erosarazi
- c) erosi arazi
- d) erosiarazi

8. Aukeratu ezazu egokiena: “*Arratsaldeko \_\_\_\_\_ zutik etorri naiz.*”

- a) trenan
- b) trenez
- c) trenaz
- d) trenean

9. Aukeratu ezazu galdera honen erantzun egokiena: “*Zer jan duzue?*”

- a) Jan? Ezer ere ez. Probatu baino ez dugu egin.
- b) Jan ez, probatu dugu.
- c) Ez dugu jan, baizik eta probatu dugu.
- d) Jan ezer ere. Probatu dugu apurtxo bat.

10. Aukeratu ezazu egokiena:

- a) Hizlarietaz gain.
- b) Urtearen zehar.
- c) Ardoa bilatzera joan.
- d) Kanean behera joan.

11. Esaldi hauetatik, zein da egokien idatzia?

- a) Honako liburu hau gomendatzen dizut, Joanak joan.
- b) Honako liburu hau, gomendatzen dizut: Joanak joan.
- c) Honako liburu hau gomendatzen dizut: *Joanak joan*.
- d) Honako liburu hau gomendatzen dizut; *Joanak joan*.

12. Lanabes hauetako bat **ez** da erabiltzen lurra lantzeko:

- a) Aitzurra
- b) Laia
- c) Goldea
- d) Ingudea

13. Hurrengo esaldietatik, zein dago **oker**?

- a) Aholku eske joan natzaio aitari.
- b) Kale estuaren zehar egin zuten aurrera manifestariak.
- c) Leihatilatik barrena sartzen dira eguzki izpiak.
- d) Eskolara bitartean kontatuko dizut atzokoa.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

14. Honako esaldi hauen artean, zein dago **oker**?
- Duela gutxi elkarrengana bildu dira.
  - Ohi ez bezalako ikuskizuna antolatu dute biharko.
  - Ez da egia Sarasate biolin jolea Gasteizen jaio omen zela.
  - Beste taldekoek, behingoz, ez dute guk adina diru bildu.
15. Buka ezazu esaldi hau: “Zaude isilik, \_\_\_\_\_”
- gezur ugari esaten duzu baina!
  - gezurra baino ez duzu esaten eta!
  - bai esaten dituzula gezurrak!
  - gezurrak eta esaten dituzula!
16. Aukeratu ezazu zuzena: “*Han zeuden guztietatik, lau \_\_\_\_\_ ez ziren irten pozik.*”
- baina
  - baizik eta
  - ez ezik
  - baino
17. “*Lantegiko lanak ongi egin \_\_\_\_\_ Mikelek euskara ikasi beharko \_\_\_\_\_.*”
- ditzaten / zituzkeen
  - zitzan / luke
  - zenezan / zukeen
  - ditzan / luke
18. Aukeratu ezazu galdera honen erantzun egokia: “*Zer moduz nago honekin?*”
- Praka horiekin hobeki ematen zaizu lehen jantzi duzuna.
  - Praka horiei hobeki joaten zaie lehen jantzi duzuna.
  - Praka horiei hobeki doakie lehen jantzi duzuna.
  - Praka horiekin hobeki joaten zaizu lehenengoa.
19. Buka ezazu esaldi hau: “*Han geratu zitzaigun autoa, \_\_\_\_\_*”
- porrot eginda.
  - ez aurrera eta ez atzera.
  - parada ederrean.
  - lur jota.
20. Aukeratu ezazu galdera honen erantzun egokia: “*Zer zaude hor etzanda?*”
- Hementxe, egoten.
  - Lasaitasunean nago hementxe.
  - Hemen, egonean.
  - Hori, ba!



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

21. Buka ezazu esaldi hau: “*Mundua hankaz gora jar daiteke, petrolioa \_\_\_\_\_*”
- agortzekotan.
  - agortzen bada.
  - agortuko balitz.
  - agortu ezkerro.
22. Aukeratu ezazu egokiena: “*Jostuna \_\_\_\_\_ bizi da.*”
- josten
  - jostekoan
  - jostetik
  - jostean
23. Esaldi hauetatik, aukeratu ezazu egokiena:
- Asko jakin ezik, ez omen da batere erraza lehiaketa hori gainditzea.
  - Beste alor bat ikutzeko daukagu, non askotan eztabaidak sor daitezke: eutanasia.
  - Etxe askotan gertatzen denez gero, saguak dauzkagu.
  - Zer nahi duzu gehiago: sagarra edo laranja?
24. “*Zein baino zein azkarragoak dira neska horiek*”. Bestela esanda:
- Neska batzuk azkarragoak dira beste batzuk baino.
  - Neska horiek beste batzuk baino azkarragoak dira.
  - Neska horiek denak ere oso azkarrak dira.
  - Beste edonor baino azkarragoak dira neska horiek.
25. Aukeratu ezazu zuzena: “*Hara heldu \_\_\_\_\_ sumatzen genuen zerbait.*”
- momentuan
  - orduko
  - momentuko
  - bakoitzeko
26. Eman iezaiozu hasiera egokia: “*\_\_\_\_\_ zuzendari-kargurako aurkeztuko zarena.*”
- Baliteke
  - Badakit
  - Bai
  - Ez nago ziur
27. Aukeratu ezazu egokiena: “*Horrelako gogorapen ilunak sarri \_\_\_\_\_, oso gustura bizi ziren aitona-amonak.*”
- izatearren
  - izateagatik
  - izanagatik
  - izateko



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

28. Esaldi hauen artean, zein da zuzen idatzita dagoena?
- Hiri horretako hauzo batean auzi larrian dabilta.
  - Hiri horretako auzo batean hauzi larrian dabilta.
  - Hiri horretako auzo batean auzi larrian dabilta.
  - Hiri horretako hauzo batean hauzi larrian dabilta.
29. Aukeratu ezazu egokiena: “Zu \_\_\_\_\_ edozer egingo nuke.”
- etortzearekin
  - etorriagatik
  - etortzeaz
  - etortzearren
30. Aurkitu ezazu esaldi honen baliokidea: “*Lar gordin dago.*”
- Larra gordina dago.
  - Gordin gehiegi dago larrean.
  - Gordinegi dago.
  - Gordin dago, baina ez gehiegi.
31. Aukeratu ezazu egokiena: “*Horrelako proba fisikoetarako \_\_\_\_\_ erabakigarria izaten da.*”
- gaztaroa
  - gaztetasuna
  - gazteria
  - gaztedia
32. Esaldi hauetatik, zein da egokiena?
- Ez du ardorik ekarri, nahikoa dagoenez.
  - Ez du ardorik ekarri, nahikoa baitago.
  - Ez du ardoa ekarri, nahikoa bait dago.
  - Ez du ardorik ekarri, nahikoa dago eta.
33. Zein da zuzena euskara batuan?
- Gizon hark ez omen daki.
  - Ariketa hoiek oso zailak dira.
  - Zergaitik ez da etorri?
  - Polita da, baino oso garestia.
34. Esaldi hauen artean, aukeratu ezazu zuzen idatzia:
- XIX. Mendeko autore batena da Parnasorako bidea.
  - XIX. mendeko autore batena da: Parnasorako bidea.
  - XIX-garren mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*.
  - XIX. mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

35. Zein da zuzena euskara batuan?
- Billera hortan gauza guztiez mintzatu da.
  - Bilera horretan gauz guztietaz mintzatu da.
  - Bilera hortan gauza guztietaz mintzatu da.
  - Bilera horretan gauza guztiez mintzatu da.
36. Aukeratu itzazu zuzenak: “ \_\_\_\_\_ *galanta eta* \_\_\_\_\_ *da zure semea.*”
- Lotsa-gabe / bihurria
  - Lotsagabe / biurria
  - Lotsa gabe / bihurri
  - Lotsagabe / bihurria
37. Zein da zuzena euskara batuan?
- Han dagoen harkaitz hartatik erori zen aurra.
  - Han dagoen arkaitz hartatik erori zen haurra.
  - Han dagoen harkaitz hartatik erori zen haurra.
  - Han dagoen arkaitz artatik erori zen aurra.
38. Sintagma hauetatik, zein dago egokien idatzia?
- Otto Pette, Anjel Lertxundi-ren nobela.
  - Otto Pette*, Anjel Lertxundiren nobela.
  - Otto Pette*, Anjel LERTXUNDI-ren nobela.
  - Otto Pette* Anjel Lertxundi-ren nobela.
39. Esaldi hauen artean, zein da zuzen idatzita dagoena?
- Hauxe duzu alferrik josten ahalegindu naizen oihala.
  - Hauxe duzu alferrik josten alegindu naizen oihala.
  - Hauxe duzu alperrik josten ahalegindu naizen oihala.
  - Hauxe duzu alperrik josten ahalegindu dudan oihala.
40. Honako zein zerrendatan ageri da **ortografia-akatsen bat**?
- Lehio, hurbil, lehiaketa, horma, hesi.
  - Zozo, ziraun, sexu, testu, zeken.
  - Otso, etsai, jaitsi, zintzarri, kutsadura.
  - Gaileta, bikain, Pello, goxo, ziur.
41. Honako esaldiotako batean puntu eta komak **gaizki** erabilia daude. Zeinetan?
- Gero eta bakanago jasotzen zituen eskutitzak; azkenik, mututu egin ziren.
  - Honako hauek etorri ziren: Ander Mujika, irakaslea; Julen Esnaola, idazkaria; Mertxe Garin, ikasketaburua.
  - Bi pertsonak ez dituzte beti gauza berberak neurri berean maite; are gehiago, bata maite duena gorrotagarri izan daiteke bestearentzat.
  - Han zeuden Mikel Etxeberría, Nekane Lasa, Mikel Garmendia; eta Uxue Langarika.





**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

42. Aukeratu ezazu **oker** dagoen esaldia:

- a) Gabriel Langarika, Hezkuntza batzordeburuak, prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
- b) Hezkuntza batzordeburu Gabriel Langarikak prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
- c) Gabriel Langarika Hezkuntza batzordeburuak prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.
- d) Gabriel Langarikak, Hezkuntza batzordeburuak, prentsaurrekoa eman zuen etorkinen seme-alaben eskolatzeari buruz.

43. Hurrengo zerrendetatik, zein da **lekuz kanpoko** hitz bat duena?

- a) berotu, kiskali, errotu
- b) erne, bizkor, bizi
- c) erori, lur jo, amildu
- d) suntsitu, txikitu, birrindu

44. Zein dago zuzen idatzia?

- a) Ballara hau oso mendittua da.
- b) Bailara hau oso mendixua da.
- c) Bailara hau oso mendizua da.
- d) Bailara hau oso menditsua da.

45. Nola esaten zaio zer entzun hura kontatzen duenari?

- a) Esaneko
- b) Kontalari
- c) Kontakatilu
- d) Esames

46. Zein hitz bikote **ez da egokia**?

- a) leku aparta
- b) adiskide mina
- c) kirolari porrokatua
- d) aukera iaioa

47. Aukeratu itzazu zuzenak: “Hainbat \_\_\_\_\_ ikusi izan ditut horrelako tresnak: \_\_\_\_\_”

- a) lekutan / baserritan, museotan...
- b) lekuetan / baserrietan, museotan...
- c) lekuan / baserritan, museotan...
- d) lekutan / baserrietan, museoetan...

48. Aukeratu ezazu zuzena: “Lagunekin parrandan ibili, eta \_\_\_\_\_ etorri zitzaigun etxera.”

- a) hirurak jota
- b) hiruretan jota
- c) hiruretan pasa
- d) hiruretatik pasa



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

49. Honako predikatu hauetatik, zein **da desegokia**?

- a) Ilea hartu.
- b) Sagarrak heldu.
- c) Hazia erein.
- d) Loreak zimeldu.

50. Aurkitu ezazu esaldi honen baliokidea: “*Iparraldearen oreina iristear dela erran du.*”

- a) Iparraldearen oraina heltzeko moduan dagoela berresan du.
- b) Iparraldearen ordua laster iritsiko dela esan du.
- c) Iparraldean dagoen oreina heltzeko moduan dago.
- d) Iparraldearen oraina iristeko eran dago.



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

**ERANTZUN-TAULA**

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50



## UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2009KO EKAINAREN 1a)

### 2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

**Irakur itzazu ondoko orrietako hiru testuak. Testu bakoitzaren amaieran, hari buruzko galderak dituzu, eta galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra eta adieraz ezazu erantzun zuzenari dagokion letra ariketaren amaieran (17. orrialdean) dagoen erantzun-taulan. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.**

#### **1. TESTUA**

#### **FRANTZIAN DESKARGA EZ DA ERRENTA; JOKOA, ALDIZ, BAI.**

Gorka Bereziartua ([www.argia.com](http://www.argia.com), 2009-05-20)

Interneten jokoa legezko egingo du Frantziako gobernuak 2010ean.

Esango didazue orain ere ari naizela idia oiloarekin gurutzatzen, barka beraz: 2010ean Frantziako Gobernuak Internet bidezko jokoa legeztatuko du, eta bitxia egin zait. Bitxia, Hadopi legearekin musika deskargak gillotinatuko dituztela ikusten ari garen sasoi honetan. Eremu basa izan da Internet urte askoan; gorbatak geroz eta gehiago ari dira sartzen, arbolak bota eta ordena ezartzen. Arrunt eskuinekoa den ordena, esan beharrik ez dago.

Ikusi bestela nork jasotzen duen egurra, eta nor den sutondoan berotzen dena. Zeri erantzuten dion jarduera bat legeztatzeak, bestea debekatzeak. Gaia ikuspuntu sozialetik begiratuta (distantzia apur batekin eta egile eskubideak babesten ei dituzten elkarten propagandaz ahaztuz) P2P sareek eta kultura “piratak” oro har, klase zigortuenei egiten diete mesede: disko, liburu, filmak 0 euroan edukitzea da tarifa egokiena langileentzat, langabeentzat, ikasleentzat, erretiratuentzat. Prezioa zenbat eta garestiago, orduan eta elitistagoa bihurtzen da kultura.

Frantziako Gobernuak (dena herriaren alde, baina herriari ez galde) Hadopi legearekin kultur produktuak eskuratzeko biderik errazena oztopatu besterik ez du egin. Bien bitartean, Interneten jokoa legeztatu; sektore horretan kapital mugimendu handiak falta ez baziren, estatuaren babesak alimaleko bultzada emango dio. Eta kapital horiek ez dira eliteen sakeletatik aterako. Jokalarien %80 baino gehiago 25 urtez azpikoa da, eta postura txikiak egiten badituzte ere, kasino numerikoetan ere banka izango da beti garaile. Askoren sos tantekin negozio borobila.

Sarkozy eta enparauen jokamoldea ez da *Jerry MacGuire* filmeko pertsonaia haren oso diferentea: badirudi “Show me the money!” dela kriterio bakarra sarerako. Konturatuko ahal dira berandu baino lehen, zenbat pobretzen duen horrek gizartea...



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

**1. testuari buruzko galderak:**

**1. Testuak dioenaren arabera, ZEIN DA EGIA adierazpen hauetatik?**

- a) Hadopi legeak legez kanpokotzat joko du Interneteko jokia.
- b) Hadopi legeak Interneteko musika-deskargak joko ditu legez kanpokotzat.
- c) Interneteko joko eta musika-deskargak joko ditu legez kanpokotzat Hadopi legeak.
- d) Klase zigortuenen alde egingo du Hadopi legeak.

**2. Testuak dioenaren arabera, ZEIN DA EGIA adierazpen hauetatik?**

- a) Frantziako Gobernuak kultura-produktuak eskuratzea erraztuko du.
- b) Elitista bihurtuko da kultura, Internet bidezko jokia legeztatuko duelako Hadopi legeak.
- c) Kultura “pirata” debekatzearekin, garestitu egingo da kultura-produktuen eskuratzea.
- d) Gizarte- eta politika-ikuspegitik begiratuta, erabaki horiekin ezkererantz egin duela dirudi Frantziako Gobernuak.

**3. Testuak dioenaren arabera, ZEIN DA EGIA adierazpen hauetatik?**

- a) Frantziako Gobernuak, indarrean jarri dituen legeekin, bultzada txikia egin dio Interneteko jokoari.
- b) Internet bidezko jokoetan, eliteek hartzen dute parte batez ere; horregatik dio idazleak kultura elitistago bihurtuko dela.
- c) “Show me the money” (“Erakuts iezadazu dirua”), hori da Internet bidezko jokoetan aplikazio informatikoak jokalariei jokatzen hasi aurretik eskatuko diena.
- d) Internet bidezko jokoetan, gazteak dira parte hartzen duten gehienak, eta haien diruarekin aberastuko omen da banka.



## UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2009KO EKAINAREN 1a)

### 2. TESTUA

#### GAUEKO BORROKA LATZA BAINO GEHIAGO

2009/03/01 | Irati Kortabitarte Egiguren (Elhuyar aldizkaria)

**Gau bat lo hartu ezinik, erdi esna edo erdi-ametsetan, pasatzea ez da inoren gustuko kontua, hurrengo goizean behar bezala atsedean hartu gabe jaikitzen baikara ohetik. Baina loezina edo insomnioa eguneroko, hobeto esanda, gaueroko kontua bihurtzen denean, arazoa larria izatera irits daiteke. Insomnioa arazo aski ezaguna da gaur egungo gizartean; ez, ordea, harekin zerikusia duen gaixotasun bat: familia-insomnio hilgarria.**

Familia-insomnio hilgarria (FIH) gaixotasun arraro bat da. 100 kasu baino gutxiago daude mundu osoan. Dena den, ez pentsa horregatik gaixotasun arrotza edo urrunekoa zaigunik euskaldunoi. Gene baten mutazioak eragiten du gaixotasuna, eta Euskal Autonomia Erkidegoan mutazio hori duten pertsonen kopurua altua da, Espainian erregistratutako kasuen % 50, hain zuzen ere.

Normalean, 50-70 urte bitartean garatzen da gaixotasuna, baina gazteagoetan eta zaharragoetan ere agertu izan da. Gaixotasun horrek nerbio-sistemaren degenerazioa eragiten du, eta gaixoari loa galarazten dio. Loaren asaldurak, oro har, hainbat sintoma eragiten ditu, baina nagusiak antsietatea, urduritasuna, apatia, suminkortasuna, nekea, ahulezia, egun osoko logura eta depresiorako aldartea izan ohi dira. Familia-insomnioaren kasuan, gaixoa lorik ez egitera ere iristen da, eta, hortaz, hilabete batzuen barruan, hil egiten da.

Behi eroen gaitzarekin lotura estua du familia-insomnio hilgarriak. Bien atzean prioi izeneko proteina infekziosoak daude. 1996. urteaz geroztik, behi eroen sindromea agertu izanaren ondorioz, Europako Batasunak gaixotasun prionikoak kontrolatzeko sistemen sorrera bultzatu du. Orduetik, jarraipen zorrotza egin zaie gaixotasun haiei, eta, haien artean, familia-insomnio hilgarriari.

#### **EAEko kasuen jarraipena**

Ezagutzen diren 100 bat kasuetatik 40 Espainian daude, eta horietatik 17 Euskal Autonomia Erkidegoan. Portzentaje ikaragarri horien zergatia aztertzeke eta EAEko kasuen kontzentrazioari azalpena emateko, EHUko biologo batek familia-insomnio hilgarria eragiten duen mutazioaren jatorria ikertu du bere doktore-tesian.

Lurralde menditsua da EAE, eta horrek isolamendu kulturala eta genetikoa eragin ditu. Hori dela eta, EAEn mutazioaren fundatzaile-efektua gertatu zela sumatu zuten ikertzaileek, eta baita asmatu ere! Gizabanako gutxi batzuek populazio berri bat sortzen dutenean gertatzen da efektu hori, eta, horren eraginez, populazio horretako kide askok ezaugarri genetiko berdinak izaten dituzte. Azken finean, mutazioa duen banako batek bere ondorengoei mutazio hori transmititzeari deitzen zaio fundatzaile-efektua. EAEko gaixoen familia genetikoak bat datozela ikusi du. Alegia, mutazioa belaunaldiz belaunaldi transmititzen joan da familia horietan. Familia-insomnio hilgarria duten gurasoen seme-alabek % 50eko probabilitatea dute mutazio hori heredatzeko. Gainera, mutazio hori heredatzen duten pertsonak aukera handiak dituzte gaixotasuna garatzeko.

Mutazio-eramaile zaharrena EAEn hegoaldean kokatzen du, XVII. eta XVIII. mendeetan. Beste eskualde batzuekin alderatu ditu datu horiek, eta ondorioztatu du erlazioak daudela horietako batzuen artean: batetik, Alemaniako kasuen eta Italiako Venetokoaren artean, eta, bestetik, Italiako Toskanako kasuen eta Espainiako kasu batzuen artean. Halaber, ondorioztatu du Espainiako kasu guztiek ez dutela jatorri bera. Arbaso komun gertukoaren antzintasuna kalkulatzeko ikusi du mutazioaren aldaerako bi duela 2.000 urte baino gehiago gertatu zirela.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

**2. testuari buruzko galderak:**

**4. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik zein EZ DA EGIA?**

- Euskaldunentzat ez da arrotza FIH gaixotasuna, Espainiako kasuen erdiak Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen baitira.
- Gazteen, adinekoen eta zaharren artean agertu izan da FIH, nahiz eta 50-70 urte bitarteko pertsonetan agertu ohi den sarrien.
- Familia-insomnio hilgarrian (FIH) Espainia da estaturik erasanena, han gertatu baitira munduko kasuen %50.
- Euskal Autonomia Erkidegoan FIH gaixotasunaren 17 kasu aurkitu dira: horregatik, ezin dugu esan arrotza eta urrunekoa zaigunik.

**5. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik zein EZ DA EGIA?**

- Gaixoaren nerbio-sistemari eragiten dio FIH gaixotasunak, eta loa eragozten.
- Jendea lo dagoen bitartean erasaten du FIH gaixotasunak; horregatik esaten da loarekin duela zerikusia.
- Logalea, abaildura eta makaltasuna dira FIH-k eragiten dituen sintometako batzuk.
- Proteina infekzioso batzuk daude FIH gaixotasunaren atzean.

**6. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik zein EZ DA EGIA?**

- FIH gaixotasuna ikertu duenak atera dituen ondorioen arabera, bakartze kulturalari aurre eginez konponduko lirateke gaixotasun horrek gure artean dituen eraginak.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren ezaugarri orografikoek eragina izan dezakete gure artean gaixotasun hori hain ugaria izan dadin.
- Mutazioa belaunaldiz belaunaldi transmititu da, mutazioaren fundatzaile-efektua delakoaren eraginez.
- Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile bat aritu da FIH gaixotasuna ikertzen.

**7. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik zein EZ DA EGIA?**

- Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, hegoaldean aurkitu du ikertzaile horrek gure arteko mutazio-eramaile zaharrena.
- Konparazioak egin ditu Europako beste eskualde batzuekin, eta antzekotasunak aurkitu ditu horietako batzuen artean.
- Orain dela 2.000 urte baino gehiago gertatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko mutazio zaharrena.
- Jatorri desberdina dute Espainiako mutazio-kasuek.



## UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2009KO EKAINAREN 1a)

### **3. TESTUA**

#### **BERE AMETSEN PAISAIA**

Oliver Sacks (*Antropologo bat Marten*, Xabier Olarra itzultzaile)

1988KO UDAN EZAGUTU nuen Franco Magnani, San Frantziskoko Exploratoriumak oroimenari buruzko sinposium bat eta erakustaldi bat antolatu zituenean. Francok egindako berrogeita hamar margolan eta marrazki zeuden sinposium hartan: guztietan ere, Pontito ageri zen, haren jaioterria, Toskanako mendialdeko herrixka bat, hogeita hamar urtean ikusi gabea zuena. Margolanen aldamenean, eranskin txundigarri gisa, argazki batzuk zeuden, Exploratoriumeko argazkilari Susan Schwartzenbergekin eginak eta ahal zen neurrian Magnaniren ikuspuntu berberetatik hartuak. (Beti ezin zen, zeren Magnanik, batzuetan, aireko puntu alegiazko batetik ikusiko balu bezala margotzen baitzuen Pontito, herri gainetik hamabost edo ehun eta berrogeita hamar metrotik ari balitz bezala. Schwartzenbergekin, inoiz, airean altxatu behar izan zuen kamera makila baten bitartez, eta helikoptero edo globo bat alokatzea ere erabili zuen behin buruan). «Oroimen-artista»tzat aurkezten zuten Magnani, eta nahikoa zen begirada bat ematea erakusketari, oroimen miragarria zuela ohartzeko: oroimen hark, itxuraz, ia zehaztasun fotografikoz eman zezakeen Pontitoko etxe, kale eta harri bakoitza: urrutitik, gertutik, irudika zitekeen edozein ikuspegitatik. Bere herriaren hiru dimentsioko maketa izugarri zehatza zuen, nonbait, Magnanik buruan, eta maketa hori birarazi eta aztertzeko gaitasuna, edo gogamenaz arakatu, eta gero mihisean zehaztasun zintzo-zintzoz berrosatzekoa.

Margolanen eta argazkien antza ikusi nuenean, pentsatu nuen jenio bat neukala aurrean, artista eidetiko bat: begi-kliskadak irauten duen bitartean eszena bat behin ikusi, eta ordutan edo egunetan gogoan eduki zezakeena (beharbada, urtetan); irudikapen eta oroimenerako berezko gaitasun miragarri baten jabe (edo jopu) zena. Baina halako artista batek nekez mugatuko zuen bere burua gai edo sujet bakarrera; aitzitik, ezerk ihes egiten ez ziola erakustearren, gai gehiagotarako baliatuko zuen oroimena, edo beste sail batera hedatuko. Magnanik, ordea, Pontito besterik ez zuen behar, antza. Erakusketa hura, beraz, «oroimen hutsa»ren erakustaldi ez ezik, sujet obsesibo bakar bati loturiko oroimen batena ere bazen: haurtzaroko herriaren oroitzapenari loturikoarena. Eta, horrenbestez, ohartzen nintzen ez zela oroimenaren ariketa hutsa; herriminenaren ariketa ere bazen, eta, ariketa ez ezik, konpulsio eta arte ere bai.





**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

**3. testuari buruzko galderak:**

**8. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik zein EZ DA EGIA?**

- Franco Magnanik San Frantziskoko Exploratoriumak antolatutako oroimenari buruzko erakustaldi batean parte hartu zuen.
- Franco Magnanik egindako berrogeita hamar margolan eta marrazki zeuden sinposium hartan: guztietan ere, bera bizi zen herria irudikatzen zuen, Pontito, Toskanako mendialdeko herrixka bat.
- Pontito irudikatzen zuten margolanen aldamenean, Susan Schwartzenbergekek egindako argazki batzuk zeuden, Magnaniren ikuspuntu berberetatik hartuak.
- Arazoak izan zituen argazkilariak Magnanik kasu bakoitzean erabili zuen ikuspuntua lortzeko, eta trikimaulu bereziak pentsatu edo erabili behar izan zituen arazoak konpontzeko.

**9. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik zein EZ DA EGIA?**

- «Oroimen-artista» esaten zioten Magnaniri, oroimen miragarria zuelako.
- Bere herriaren hiru dimentsioko maketa zehatz bat zuen Magnanik etxean, eta horri esker lortzen zuen Pontito hain zehatz irudikatzea.
- Oihalean, zintzo-zintzo eta zehaztasun osoz irudikatzen zuen Magnanik bere jaioterria.
- Ia argazkilari batek bezala, zehaztasun osoz, eman zezakeen Pontitoko etxe, kale eta harri bakoitza: askotariko ikuspuntuetatik, gainera.

**10. Testuak dioenaren arabera, adierazpen hauetatik zein EZ DA EGIA?**

- Pontito irudikatzeaz gain, gai gehiagotarako erabili zuen bere oroimen harrigarria Magnanik.
- Oso lotua zegoen Magnani haurtzaroko herriaren oroitzapenari.
- Eszena bat behin ikusi, eta gogoan eduki zezakeen Magnanik ordutan, egunetan edo luzaroago.
- Obsesionaturiko artista baten emaitza zirudien erakusketak: jaioterria, haurtzaroa, herrimina.

**IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA**

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
 (2009KO EKAINAREN 1a)**

### 3. ARIKETA: IDAZLANA

Egingo duzun idazlanak 250 hitz izan behar ditu gutxienez. Mesedez, idatz ezazu boligrafoz eta gogoan izan ezazu azterketa egiteko duzun denbora. Amaitzean, eman iezaiezu azterketa osoa aztertzaileei. Idazlana egiteko A edo B hautatu behar duzu, eta aukera horietako bat garatzeko, azpian dituzun gaietako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan). Ezinbestekoa da gai horri ongi lotzea idazlana garatzean. Idazlana euskara batuan egin behar da.

**A) Unibertsitateko** lankide batek laguntza eskatu dizu. Irakasle talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, baina artikulu faltan egoten dira maiz. Hori dela eta, zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulu batean. Gogoan izan ikasleentzat ari zarela idazten, zabalkunde lanean alegia (ez testu akademikoa prestatzen). Hala nahi izanez gero, zeure iritzia ere plazaratu dezakezu, aukeratu duzun gaiaren inguruan.

**B) Eskolako apunteak** prestatzen ari zara eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, edo gai horren azpiko gai zehatzen bat polikiago aztertuko duzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIAK	
<b>Arkitektura</b>	Nola hazi beharko luke hiriak?	Zertan datza eraikuntza gotikoa?
<b>Artea</b>	Eiffel dorrea eta Bizkaia zubia.	Museoak. Zer dira? Nolakoak eta norentzat? Jar itzazu adibideak.
<b>Biologia</b>	Munduaren berotzea eta izaki bizidunak: landareak eta animaliak.	Immunitatea. Immunitate naturala eta artifiziala. Immunoeskasia.
<b>Ekonomia</b>	Monopolioaren esanahia ekonomian.	Nazioarteko merkatu-harremanak.
<b>Filologia</b>	Latinetiko hizkuntzak: hizkuntza erromanikoak.	Literatura eta itzulpena.
<b>Filosofia</b>	Gaurko filosofoak.	Sokratesen aurreko filosofoak.
<b>Fisika</b>	Grabitazio-indarra: orbita-motak.	Uhinak: soinua eta argia.
<b>Geografia</b>	Paisaiaren aldaketa giza ekintzaren ondorioz.	Atzerriarrak Europan gaur egun.
<b>Geologia</b>	Higadura. Lurraren eta paisaiaren aldaketa higaduraren eraginez.	Plaken tektonika. Zer dira lurrikarak?
<b>Gizarte-zientziak</b>	Gizarte- eta kultura-aldaketak.	Iritzi publikoa.
<b>Gorputz-heziketa</b>	Hirugarren adina eta kirola.	Jarduera fisikoaren garrantzia umeen garapenean.
<b>Historia</b>	Estatu Batuak eta Sobiet Batasuna gerra hotzaren garaian.	Frankismoaren kronika laburra.
<b>Informatika</b>	Segurtasun informatikoa: antibirusak.	Sistema eragileak. Linux eta Windows konparatzen.
<b>Informazioa</b>	Emakumearen irudia publizitatean: genero-arazoak.	Ordainduta ikusteko programak ala publizitatearen bidez finantzaturako telebista?
<b>Kimika</b>	Gas idealen propietateak.	Lotura ionikoa, kobalentea eta metalikoa.
<b>Matematika</b>	Egitura algebraikoak.	Segidak eta serieak.



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

<b>Osasuna</b>	Zer jakin behar luke herritar arruntak giza anatomia eta fisiologiaz?	Osasun arloko industria kimikoak eta farmazeutikoak.
<b>Pedagogia</b>	Gorputz-adierazpena eta komunikazioa.	Indarkeria eskolan.
<b>Psikologia</b>	Terapia berriak: musikaterapia, barreterapia ...	Psikologoa eta psikiatra: aldeak eta parekotasunak.
<b>Teknologia</b>	Zenbakizko kontrola fabrikazioan.	Sakelako telefonoak: ezaugarri teknikoak eta gizarte-eragina.
<b>Zuzenbidea</b>	Familiari buruzko araudiaren berrikuntzak: dibortzioaren legea, homosexualen ezkontza, ezkongabeko bikoteak eta abar.	Konsumitzaileak babesteko legeak.



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

**ARLOA:**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**

**AUKERA (A edo B):**



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2009KO EKAINAREN 1a)**

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN  
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA**

**UPV/EHUko EUSKARA PROBA. ZUZENKETA-FITXA (1):**

**AZTERKETARIA:** ..... **NAN:** .....

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI ( $\geq 32$ )		EZ GAI ( $< 32$ )

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI ( $\geq 6$ )		EZ GAI ( $< 6$ )

Idazlana

GAI	EZ GAI
-----	--------

**AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZ GAI**

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

**AHOZKO AZTERKETA**

GAI	EZ GAI
-----	--------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea


**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
 (2009KO EKAINAREN 1a)**
**UPV/EHUko EUSKARA PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)**  
**<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO**

 Azterketaria: .....  
 (Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

## IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	joskera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	joskera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

## AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: